

**204/2021** Ebazpena, apirilaren 26koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratzeko agintzen dira aldi baterako kontrataziorako eguneratutako zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan (2014ko aldi baterako kontratazio zerrendak indarrean dauden kategorietan).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren 10.4. atalaren arabera, urtero lehen lauhilekoan eguneratuko dira. Alde batetik, sartuko dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan dagokion kontratazio-zerrendako kategorian aurreko urtean dagokion kategorian emandako esperientzia profesionala. Bestalde, ezarriko den epean aurkeztutako hizkuntza-eskakizunak ere sartuko dira, erabaki honen 4. atalean aurreikusitakoari jarraiturik. Hori dela-eta,

#### **EBATZI DUT:**

**Lehena.-** Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian argitaratzeko agintzea 2014ko aldi baterako kontrataziorako eguneratutako zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan, indarrean dauden kategoriei dagokienez.

2021eko apirilaren 27an indarrean sartuko dira zerrenda eguneratuak.

**Bigarrena.-** Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 26an.



**Osakidetza**  
María Pilar Uñarte Brizuela  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR/ DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uñarte Brizuela

**OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA**